



### 3 KULTURA

#### Urtea amaitu biatartean kultur ekintzak izango dira

Haur eta helduen zine eta antzerkia, dantza, musika... denetarikoz osagaiak ditu urteko azken hiruhilabeteko kultur programazioak. Zinearen arloan etorri da beharbada berrikuntza aipagarriena: zine digitala hasi da asteburu honetan bertan. Proiektore zaharra kendu eta digital bat jarri dute; horrek ahalbidetuko du estreatu berri diren filmak Lasarte-Orian lehenago ikusteko aukera edukitzea, besteak beste.

### 4 OMENALDIA

#### Herriko nagusiak omendu dituzte aste honetan

Ibilaldia neurtua, meza nagusia, kultur-etxeko ekitaldiak, jokoak, bazkari herrikoia, dantzaldiak etab. egin dituzte Biyak Bat elkarteak aste osoan zehar eta asteburua izan da asteoko ekintza nagusiak bildu dituenak. Herriko adinekoak ez daude geldirik egoteko eta hori agerian geratu da beste urtebetetik. Lasarte-Oriako Nagusiak merezitako omenaldia jaso dute egun hauetan eta oraindik egitarauan geratzen da ekintzarik.



## Ibilbideen VII. Eguna igandean

Bost ibilbide prestatu dituzte, Buruntzaldeako udalerritan barrena

Urriaren 12an egingo dute Buruntzaldeako Ibilbideen egunaren zazpigarren edizioa. Bost ibilbide desberdin egingo aukera egongo da, Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain eta Urnieta herrietan barrena. Buruntzaldea eskualdea eta bere landingurune naturala ezagutzeko aukera paregabea izango da egun horretan.



Iñaki Ugarte eta Alaitz Mendizabal, ostiral eguerdian Usurbilgo Poixoenen kultur etxean egindako agerraldian.

**A**geraldia egin zuten joan den asteo ostiralean Usurbilgo Poixoenen kultur etxean Iñaki Ugarte Usurbilgo Kirol zinegotziak eta Lasarte-Oriako udalako Parte Hartze zinegotzi Alaitz Mendizabalek (Gazteria eta Festak eta Kirol zinegotzi Tasio Arrizabalagaren ordezkari) 12:00etan. Andoaingo eta Urnieta-ko udal ordezkariak ez zuten josterik izan.

Lasarte-Oriak antolatzen du aurtengo edizioa. Urriaren 12an izango da Buruntzaldeko Ibilbideen eguna, igandean, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Guztira, bost ibilbide egingo dira aukeran: Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil eta Andoain herriak kontuan hartuta diseinatu dira. Ibilbide bakoitzaren inguruko distantzia eta trazuak egingo dira udalerri guztietan.

Andoaindik Lasarte-Oriara doana izango da ibilbideetako bat: 7,9 kilometro eduki dugu, eta urdina eta urre zaharra izango dira identifikazio-koloreak. Oinez egin daiteke soilik eta beharrezkoak izango dira mendiko oinezkoak.

Laburra da, Lasarte-Oriatik Urnieta doana izango da: 3,9 kilometroko luzera edukiko du. Koloreak urte zaharra eta berdea izango dira. Bizikletaz edo oinez egin ahaliko da, baldin kirola egiteko oinetakoak badaramatzate ibilbidean egin nahi dutenek. Ibilbideetan azkenak hiru puntu lotzen ditu: Lasarte-Oria, Usurbil eta

Aginaga. 9 kilometro luze izango ditu bideak. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, kirol oinetakoekin. Identifikazio koloreak urte zaharra eta laranja izango dira.

#### Seinaleak herrietan

Lehen esan bezala, lau udalerrietako bakoitzean jarriko dituzte ibilbideei buruzko xehetasun eta seinaleak. Seinale horiek udalerri bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude (Lasarte-Oriakoak urte zahar kolorez; Urnieta-koak, berdez; laranja Usurbilgoak, eta urdinaz Andoaingoak).

Txartel bat emango zaio ibilbideen egunean parte hartzen duen pertsona bakoitzari, abiatzen den udalerriko ziguilarekin. Ugartek zehaztu zenez, "buff bat" jasoko dute opari "bi ibilbide" egiten dituzten partaideek. Era berean, bost ibilbideetan luzeena delako, buff bat jasoko dute Andoaindik Usurbilera.

bifera doan ibilbidea eginen dutenek.

#### Autobus zerbitzuak

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, autobus zerbitzua eskainiko dute urriaren 12an, parte-hartzaile bakoitzak aukera izan dezan bere herria bueltatzeko. Hasieran jasotako ziguiludun txartela aurkeztu beharko da zerbitzua erabiltzeko. Hiru autobus atariko dira Aginagako Ezpaldiko gasolindegitik: 12:00etan, 13:00etan eta 14:00etan.

Abiatu eta zazpi minutu iritsiko dira lehen geltokira: Usurbilera, San Inazio biribilgunea. Lasarte-Oria izango da hurrengo puntua, Dorretxeko biribilgunea zehazki. 12:15, 13:15 eta 14:15etan iritsiko dira hara. Atera eta 30 minutu iritsiko dira Andoainera, Goiko plaza atzealdera. Urmieta bukatuko dira hiru zerbitzuak, Kiosko geltokian, 12:40, 13:40 eta 14:40etan.

## MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Krisi garaian, gure esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pulsuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

## ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etzeko txorizoa Tripakiak- Salbitxak

Txorizorra Basurde burua

Basurde burua Baserri pateak

### BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren Kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria

Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

POLITIKA

# EH Bilduren zalantzei erantzuna

*Ukatu egin du PSE-EEK Teresategiko lurrak milioi bat euro gehiagotan gainbaloratu zituenik*

Agerraldia egin zuten joan den asteleheneko arratsaldean PSE-Eeren bozeramaile Jesus Zaballosek eta Iñaki Mugika zinegotziak, PSE-Eeren egoitzan, 18:30ean. Zehaztu zuten Teresategiko lurrak ez direla milioi bat euro gehiagotan gainbaloratuak izan, eta alderdi sozialistak ez zuela lehenetsi udalteeza azkar aberastea Lasarte-Oriako herritarren etxebizitza beharren gainetik.

TXINTXARRI

**D**uela hiru aste EH Bilduk esan zuen garaia zela PSE-Eeren hirigintza politika zalantzan jartzeko. Teresategiko lurrak jarri zituen adibide gisa; zehaztu zuten lur horiek milioi bat euro gehiagotan gainbaloratuak zirela hitzarmen bat sinatu zela 2006an.

Gogor kritikatu zituen Zaballosek EH Bilduk irailaren 19an esandakoak: "EH Bilduk eta Nerea Sanchez zinegotziak esan zuten hitzarmen hori sinatzearekin Udala aberastea bilatzen genuela, herriko etxebizitza beharren

gainetik. Lotsa gutxi behar da hori esateko, joan den ostegunean Zataraingo sustatzaile eta eraikitzaileekin Hitzarmen Urbanistiko bat sinatu zuten. Zergatik ez ditu etxebizitza jaso, dirua beharreat?".

"Jakin nahiko nuke zein ikerketa egin diren kalkulatzeko milioi bat euro gehiagotan gainbaloratu zirela Teresategiko lurrak", adierazi zuen Zaballosek. "Teresategiko lurren balorazio ekonomikoa udalteekeko langile batek egin zuen, baina ez dakigu EH Bilduk zein kalkulatu egin duten".

## Teresategiko proiektua

"EH Bilduk esan du udalteekearen interesen aurka egin



Jesus Zaballos eta Iñaki Mugika, joan den asteleheneko agerraldian azalpenak ematen.

genuela Teresategiko lurren kontuarekin, baina benetan aurka daudenak haiek dira, EAJ eta LOHPrekin 2013ko apirilaren 9an bertan behera utzi zutelako Teresategin industrialdea eraikitzearen proiektua", esan zuen Zaballosek. "Aurrera jarraitu balu-

te, galera patrimonialik ez zen egongo eta herrian lana sustatuko litzateke".

"PSE-Eeren hirigintza politika ezbaian jartzearekin EH Bilduk bilatzen duena Udalean beraiek egindako kudeaketa txarra estaltzea da", salatu zuen Zaballosek. "Nerea San-

chezek eta EH Bilduk frogatu badezakete hirigintza delitu bat egin dugula, eraman gaitzateela tribunaletara. Baina orain arte bezala batere frogarik aurkeztu gabe gezurrik esaten jarraitzen badute, guk geuk jarriko dugu salaketa", ohartarazi zuen Zaballosek.

## Kapsulak emanaldia Markeliñeren eskutik

**M**arkeliñe konpainiak haur eta familientzat prestatutako "Kapsulak" antzerkia eskaini zuen larunbat arratsaldean Manuel Lekuona kultur etxean. Ia ordubate iraun zuen emanaldia izan zen, kontzertu eta antzerkiaren arteko zerbait, edo beste modu batera esanda, zuzeneko musika, ikus-entzunezko proiektzioak eta antzerki ukitua izan zituen obra aurkeztu zuten lasarteiarren aurrean.

Zuzeneko musikari dago-kionez, ahotsak, baxuak, bateriak eta kitarrak eman zioten indarra oholiza gainera eszenografiari. Ikus-entzule txikiekin komunikatzeko poesia puntua zuten letrak,



Zuzeneko musika eta antzerkia uztartu zituen Markeliñe konpainiaren obrak.

baina aldi berean baita rock-folk ukitua ere, ikuskizunari bizitasuna emateko.

Gurasoentzat berri, haurtzaroko txoko sekretu eta

ia ahaztuak azaleratzeko prestatutako ikuskizuna izan zen Samfaina de Colores talde kataluniarrak eta Markeliñek elkarlanean sortutakoa.

## Loidiko tunela itxita



Gaurtik aurrera hobekuntzak egingo ditu Aldundiak bertan.

**U**dalak jakitera eman duenez, aspalditik egoera txarrean dago Loidiko tunela, juntetako altzairuzko armadurak herdoiltzen eta hormigoiz zatik erortzen direlako. Hori dela eta Aldundiko Errepide sailak konponketak egingo ditu gaurtik hasita. Hauen iraupena hilabetekoa izango dela aurreratu dute.

Tunelean egingo diren hobekuntza lanetan, gaizki dauden sabaiko guneak saneatu, hormigoiz bete eta pintatu egingo direla aipatu dute. Prozesu guztiak iraun bitartean, itxita egingo da. Kiroledegitik hasi eta Zabale-tako errotanda arte seinale bidez adieraziak egingo dira lanak.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



#### Argitaratzailea:

Ttatum Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
C-20407557  
Legeko gordailua:  
SSS13/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7800

#### txinbarri

**Eredakzioa:**  
Maider Azurmendi, Jon Altuna  
E-Itzi Gortalez  
**txinbarri@txinbarri.info**  
**Publizitatea eta administrazioa:**  
Aiantza Artola  
**publizitatea@ttatum.com**  
**administratio@ttatum.com**  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoz, Corra Lasa,  
Ane Labaka, Itzi Arri, Aier  
Ordizola, Jose M. Hernandez,  
Jesus Artze, Pako Azpitarte, Edu  
Galarza  
**Informaticoa:**  
Xabier Arnoz

## KULTURA

# Kultur ekintza ugari, urtea bukatu bitarte

Zine digitalaren hasiera da egitarauko berrikuntza nagusietako bat

Haur eta helduen zine eta antzerkia, dantza, musika... denetarikoa osagaiak ditu urteko azken hiruhilabeteko kultur programazioak. Zinearen arloan etorri da behar bada berrikuntza apagarriena: zine digitala hasi da asteburu honetan bertan. Proiektore zaharra kendu eta digital bat jarri dute; horrek ahalbidetuko du estreinatutako berri diren filmak Lasarte-Orian lehenago ikusteko aukera edukitzea, besteak beste.



Ugarte, Nogales eta Goitia, joan den asteko ostegunean Manuel Lekuonan egin zuten agerraldian.

## TXINTXARRI

**K**humba' eta 'El niño'. Horiek izan dira proiektore digital berriarekin egindako lehen bi emanaldiak. Atzo izan zuten aukera herritarrek bi filmak ikusteko.

Ostiral honetan izango da hurrengo hizordua: 'Carmina y amen' pelikula emango dute, Okendoko ZineFonamarekin elkarlanean, 22:00etan. Sarrerak Manuel Lekuonako txarteldegian erosi nahi dituztenek 4,70 euro ordaindu beharko dituzte (online hartzen dituztenak 4,24 euro).

## Zine digitala

Agerraldia egin zuten joan den ostegunean Kultur departamenduko Boris Nogales,

Juanti Ugarte eta Xabier Goitiak, kultur programazioaren inguruko xehetasun guztiak emateko.

"Zinearen digitalizazioaren abantaila nagusietako bat estreinatutako berri diren filmak askoz ere lehenago ikustea da", adierazi zuten Nogalesek. Horren adierazgarri, Donostiako Zinemaldian oihartzun handia eduki duen 'Lasa eta Zabala' pelikularen bost pase izango dira Manuel Lekuonan: urriaren 18an eta 19an bina, 20:00etan eta 22:00etan. 20an izango da azkena, 20:00etan. Sarrera txarteldegian erosten dutenek 5,90 euro ordaindu beharko dituzte, eta 5,30 euro online hartzen dituztenek.

## Aldaketak online salmentan

Zinearen digitalizazioarekin batera beste aldaketa bat egingo dute: sarreraren online salmenta sistema berria jarriko dute. Azaroan egingo dute aldaketa: Kutcabank sistema ezarriko dute. Nogalesek zehaztu zuenez, "aurrera pauso" bat izango da sistema berria ezartzea, "errazagoa" izango baita zenbakiak daukien erabiltzeko. Urriaren sistema zaharra erabiltzeko: bibe.me webgunea.

Xabier Goitiak zine bonoen inguruko oharra eman zuen: "Herriarrek orain arte erosi dituzten bonoak aldatu beharko dira sarrerengatik, baina berriek ez dugu salgai jarriko zinearen

digitalizazioa erabat bukatu arte".

## Kultura taldeekin elkarlana

Zineaz gain, beste hainbat kultur eskaintza aurkeztu dituzte azken hiruhilabeteko, herriko kultura taldeekin elkarlanean: dantza eta antzerki amateur programazioa (urriaren 17an Zurriola antzerki taldearen emanaldia, Kukukaren eskutik) Euskadiko Andaluziako Etxean Topaketa (urriaren 9tik 11ra) eta Lasarte-Oriako akordeoi jaialdia (Zero Setteren eskutik, azaroaren 9an), besteak beste. Hortaz, kultur programazioak ez du etenik izango urtea bukatzeko geratzen diren hiru hilabete hauetan.

## Urriaren 21ean hasiko da II. Irakurle Txokoa

**I**azko edizioak izandako arrakasta ikusita, antolatzaileek erabaki dute bigarren edizioa diotela aurten. Urriaren 21ean izango da 1go saioa: Bernardo Atxagaren 'Nevadako egunak' nobela aztertuko dute Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan, 18:30etatik aurrera. Uxue Alberdik egingo ditu dinamizatzaile lanak aurten ere.

Hilero-hilero bilduko dira literatura zaleak Manuel Lekuonan, hileko hirugarren asteetan. Hainbat obra landu eta haien inguruko solasaldi eta gogoetak egingo dituzte.

## Ezagarri bereziak

Saio irekiak egiten ditu beti irakurle txokoa. Hau da, bileran landuko duten liburua irakurri ez dutenak ere gonbidatuta egongo dira. Euskarzako literatura irakurtzen eta



Irakurle txokoa lehengo urtean egindako saioetako bat.

lanten dute bileratan irakurle txokokoek; euskaraz sortu diren edo beste hizkuntza batetik euskarara itzuliak izan diren lanak aztertzen dituzte.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, lehengo urtean txokora hurbildu zen jende askok euskal literatura ezagu-

tu eta orain hartu du ohitura euskaraz irakurtzeko.

## Bilera ugari

Urriaren hasi eta maiatza bitartean zortzi bilera egingo dituzte. Urriaren 21ean Atxagaren Nevadako egunak eleberria aztertuko dute; Lander

Garronen 'Gerra txikia' ezagutuko dute azaroaren 18an; Jon Mirandeen 'Haur besoetako' aztertuko amaituko dute urtea (abenduak 16), eta Mari Luz Estebanen 'Amaren heriotzak librea' egin ninduen' poesia libururaren hasi (urtarrilak 27). Lan horiek aztertuko dituzte lehen lau bileratan.

Otsailaren 17an egingo dute bosgarrena, 'Genero ariketak' saiakera aztertuko dute. Dani Sarriugarteren 'Errainak' nobelaz arituko dira martxoaren 17an, eta Annie Ernaux-en 'Pasio hutsa' nobela izango dute hizpide apirilaren 21ean. Aurtengo bilerekin bukatuko, Jule Goikoetxearen 'Tractatus' poesia liburua aztertuko dute. Bi saiotik behin libururak idatzi dituzten idazleak joango dira Lasarte-Oriako irakurle txokora. Lasarte-

## EUSKARA

### Nafarroatubusera

Hernaniko Dobera Elkartearekin Itakunek urriaren 19an den Nafarroatubusera autobus atolatu du. 9:00etan Hernanitik abiatu eta Lasarte-Orian 9:15ean egingo du geldialdia Jalgi parean jendea hartzeko. Dagoeneko txartelak eros daitezke, Itakuneko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek berri, 12 euro. Lekua hartzeko azken eguna urriaren 16a izango da.

## DANTZA

### Erketzen entsegu hasiera

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeek urrian hasiko dituzte entseguak. Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean egingo ditu saioak eta Erketz EDT-koek, ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera. 5 urteko aurrerako haurrek Erketz txikin dantza egiteko aukera dutela gogoratu dute. Informazio gehiagorako 635 746 028 telefonora deitu daitezke.

## GAZTELEKUA

### Ikastaro eskaintza berria

Gaztelekuo ikastaroetan izena emateko azken eguna urriaren 9a izango da. Lasarte-Orian errolatuta daudenek 8 euro ordaindu beharko dituzte, eta 16 euro errolatuta gabeeek. Ikastaro sorta zabalak prestatu du Gaztelekuak. Asteartean, Argazkigintza eta Txalaparta ikastaroak egin ahaliko dira. Asteazkenetan, Polinesia dantza, Zeramika eta Gitarra ikastaroak antolatuko dituzte eta ostegunetan Eraldatutako materialak izeneko egongo da eta ostiralean berri, Batuka.

## INTERNET

### Inauterietako gaia erabakitze deia

Martxan jarri du Udalak datoren urteko Inauterietako gaia erabakitze prozesua. Eskurriak banatuko dizkiete herriarrei. Ori horietan gai bat idatzi beharko da, eta edozein udal erakinetara eraman. Urriaren 26ra arte jasoko dituzte proposamenak. Trola bat ere jarri dute martxan: #mozoro15.



Michelingo frontoian egindako bazkarian 370 lagun bildu ziren eta aurtengo omenduak Laura Munduatate eta Pedro Etxaño izan dira.

## Nagusien omenaldia

Ibilaldi neurtua, meza nagusia, kultur-etxeko ekitaldiak, jokoak, bazkari herrikoia... egin dituzte adinekoek

**Aste osoan zehar egin dituzte herriko adinekoek euren ospakizun eta ekintzak, baina asteburuko egunak izan dira egun handiak. Asteazkenean adinekoen egoitzaren aurrean bändera igotzearekin hasi zen festa eta igandean, Michelingo pilotalekuko bazkari erraldoiarekin amaitu.**

TXINTXARRI

Adinekoek merezitako omenaldia jaso dute. Asteazkenean banderaren jobera eta jokoak egin zituzten Isla Plazan, ostegunean Biyak Bat koruak eta Ordiziako abesbatzak kontzertua eskaini zuten eta ostiralean Cotillas antzerkia ikusteko aukera izan zuten herritarrek.

### Asteburuko ekintzak

Asteburuari sasoi betean ekiteko, ibilaldi neurtua egin zuten Okendotik abiatuta 40 bikotek. Kamiseta gorri jantzita eta dortsala gainean, Okendo hasi eta Iñigo de Loiola, Goiegi, Institutua,

Sasoa eta Tajamerreko errotdina, Kale Nagusia, Goinkale eta Oriá atzetan utzita, Okendon bertan amaitu zuten ibilbidia. Amaitezen sari banaketa egin zen eta urdaizpikoak, gaztak eta xanpaina jaso zituzten opari saridunek. Arratsaldean ere gorputza mugitzeko aukera izan zuten Zaharren Egoitzako dantzaldian parte-hartuz.

Baina egun handia, herriko adinduak elegante jantzita ikusi genituen eguna atzokoa izan zen. San Pedro parrokian Xabier Andonegi eta Don Ramon apaizek emandako meza entzun eta irtelean kalejiran abiatu ziren denak Manuel Lekunaraino Amaurreko trikitalariak gidari

zituztela. Bertan Biyak Bat korua eta Amaia Gonzalez Caballeroren eta haren ikasle dantza emanaldia ikusteko aukera izan zuten adinekoek.

Udalak eta Biyak Batek elkarlanean prestatutako asteburuko ekintzei amaiera behar den bezala emateko, bazkaria egin zuten 370 lagunek Pablo Barrio alkatea eta Gorka Lizarraga Gizarte zerbitzuen sailako zinegotzia bertan zirela. Aurtengo omenduak Laura Munduatate Arruti jaiotzez andoaindarra eta Pedro Etxaño Saez palentziarra izan dira. Biak ala biak 1922. urtean jaiotakoak eta 92 urte izanagatik, umoretsu eta oroimena fresko zutela garaiko anekdotak kontatu zituzten.

Asteburu osoan eguraldi ona izan zuten igande goizean euri pixka bat egin arren eta euren ekintzak giro onean egin ahal izan zituzten.



3.  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



Informazio gehiago:  
[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuak hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 22, Hernanin,  
Biteri kultur etxean, 18:30ean**

## LABURRAK.

## FUTBOLA.

## Estiloak atala abiatu du Buruntzaldea IKTK

Urriaren 4an, larunbatean, denboraldi berria hasi zuen herriko klubak Estiloak atalean. Izen-emate epea oraindik zabalik dago talde honetan parte-hartu nahi duen ororentzat. Larunbatean burutzen da jardura eta igeriketa probatu nahi dutenei eta euren igeriketa ahalmenak hobetzea helburu duten haurrei aukera ematen du Estiloak-ek.

Saioetan haurrei oinarri-zko ahalmenak eta igeriketa estilo desberdinetako hastapen eta garapena eskainiko zaizkie. Adin artea 1999 eta 2004. urteetan jaiotako gaztekoentzat jarrita dago eta ordutegia larunbatetan, 11:45etatik 12:45era izango da. Izen-emateko asmoa duen buruntzaldeaik.blogspot.com webean du aukera.

## Ostadar SKTKo saskibaloitalkak hasi dute denboraldia

Aurten lau talde izango ditu Gipuzkoako mailan lehiatzen. Asteburuan jokatu zuten lehen partida lau talde horietako hiruk eta emaitzak honakoak izan ziren: 3. Probinzialdeko senior mutiletan, Ostadar 76 - Askatuak 54; Errendimenduko junior nesketan, CD Inter 38 - Ostadar 60; Errendimenduko kadete nesketan, Ostadar 48 - Askatuak 50. Beraz, hiru partidatik bi irabazi zituzten urdin-beltzek.

## SASKIBALOA.

## ACTren ospakizunak

50. urteurrena ospatu du ACT herriko saskibaloitalkak. 1964. urtean kirolak lotu zituen neska haiek urteak pasa ahal, lagun handi bihurtu dira. Pasa den larunbatean ospatu zuten mezde erdia. Lehenik eta behin, Brigitarren komentuan meza eman zuen Xabier Andonegi apaizak eta gogoran izan zituzten garu egun zenduta dauden jokalaririk.

Meza amaituta agurra dantzatu zitzaion ACT taldeko emakumeei eta Goiegirako bidea hartu zuten bazkari eder bat egiteko. Umore onean, garai bateko pasadizo eta bizipenak gogoratu zituzten jatetxe aurreko saskian eta argazkia atera zuten zelaian bertan baloia eskutan zutela. Bazkalostean partaide bakoitzari makila eman zitzaion, bonboi kaxa batekin batera.



ACTren ospakizunak. Aurrerantzean: Ostadar SKTKo saskibaloitalkak.

## Omenaldia eta banako berdinketa Michelinen Ostadar-Bergara partida aurretik Fran Toquero atezain ohia omendu dute

Neurketa irabaztea merezi izan arren berdinu edota galtzea futbolaren askotan gertatzen den gauza da. Galdetu diezaiotela bestela Fran Toquero atezainari, 20 urtez talde urdin-beltzaren atea zaintzen aritu den lasarteoriatarri. Ilbilbide luze eta oparoaren ostean futbola uztea erabaki du eta Ostadarrek, bihotzeko taldeak, ezin izan dio asteburuan garaipena eskaini, irabaztea merezi izan zuten arren.

## TXINTXARRI

Ostadarren Ohorezko Erregionalen taldeak beste puntuxto bat zakuratu zuen larunbat arratsaldean Michelinen Bergararen aurka jokaturako norgehiagokan.

Lehen zatiaeren hasierako minutuetan bergarrak izan ziren baloieran jabe eta jokoa Ostadarren zelaian egin eta sortu zuten gehienbat. Baina minutuek aurrera egin ahal, Ostadarrek baloieran jabetza berreskuratu zuen eta aurkera bat edo beste sortu arren, ezin izan zuten golik sartu asedendaldira joan aurretik.

Bigarren zatitari ekin bezain pronto, Medinaren mutilak gola sartu zuten 15. minutuan. Alvaro Benjumeak ezker hegaletik Gorka Britenik bat-bikoa egin eta Benjumeak heriotzaren pasea eman zion Brit profesional ohiairi ahoko zuloan gola zar zezan.

Pozak ez zien gehiegi iraun ordea urdin-beltzei.

Gola egin eta ia hurrengo jokaldian area ertzeko falta jarritaketa bat probestuz egin baitzuen gola Bergara KE-k. Defentsa larroak eta atezainak ez zuten elkar ulertu eta zoritxarez baloia sareetan ipini zuten kanpokoek.

90. minutua bete artean Ostadarrek abaguneran bat izan bazuen ere, banako berdinketarekin amaitu zen Ligako laugarren jardunaldia. Oraingoz garaipen bat, bi berdinketa eta porrot bat pilatzen ditu eta sailkapenaren erdikaldean dago bost punturrekin.

## Omenaldia Fran Toquerori

Klubak 20 urteko ilbilbide luzearen errekonozimendua egin nahi izan zion atezain lasarteoriatarri. Partida hasi aurretik bi taldeetako jokalariek pasilloa egin zitoten eta zelai erdian kamiseta bat jaso zuten opari bere izena bizkarean zuela. Hori gutxi ez, eta Joxe Kruz Labakak egindako makila jaso zuten. Erketzekoek aureskuia dantzatu zitoten



Fran Toquero Ostadarreko atezain-ohia goian eta Alexander Pains behin.

ohorezko saka egin eta guztiei eskerak eman aurretik.

Ostadarreko zuzendari-zak sentimenduz beteriko hitzak izan zituen 20 urtez Michelingo atea zaintzen aritu den gizonarentzat: "Ilbilbide oso bat saritu da. Ostadarrekit jokalaririk onak, erdipurdikoak eta txarrak

pasatzen dira, baina horren gainetik, Fran Ostadar da, gure filosofiatik edan duena, eta gure filosofiarekin bat egin duena. Gainera, orain futbola utzita, kadete mailako atezainak trebatzen laguntzen ari da. Berarengatik egin dutena, orain besteengatik egiten ari da. Ostadar %100ean".

## PILOTA.

## Hirutik bi Gipuzkoako Txapelketa hasteko

Lasarte-Oriako Intza taldeak Ligedokolo Lizardi menderatu zuten pasa den larunbat arratsaldean Gipuzkoako Txapelketako Bigarren Mailako partidari. Jon Pello Artetxe eta Aritz Solano herritarrek 22-15 gailendu zuten loritz Etxeberriak eta Unai Goikoetxeak osatutako bikotea. Partida berdinduta joan zen lan erdietara arte, hamalaura ere berdindu zuten, baina Intzako gizonak bost tanto jarraian eginda, 19-14 hartu zuten aurrera. Igeldotarrekin fisikoki behera egin zuten ordubate luze iraun zuten partidueren hondarrean eta hori baliatu zuten Artetxe eta Solanok markagailuan ihes egiteko.

Azken emaitza 22-15, eta bigarren garaipena lortu dute lehen bi jardunaldietan. Aurreko astean Villabonako



Jon Pello Artetxe pilota postura behartua jasozten Lizardiren aurka.

Behar-Zanaren aurka 22-13 irabazi zuten Artetxe eta Solano gain, Haritz Urkiak ere osatzen duen taldeak.

Asteburu honetan ordea, 22-7 galdu zuten Usturibelen aurka. Hasiera-hasieretik bizi-lagunek errenta hartu eta Intzako mutille ez zitzairen ezertxo ere atera, hutsegite asko egin zituzten.

"Urrats handia eman dugu hirutik bi irabazita, iaz azken unean, ozta-ozta bi garaipenekin lortu genuen mailari eustea, eta aurten dagoeneko lehenengo urteko garaipen kopuru bera daukagu", adierazi du Jose Felix Solano Intzako prestatzaileak. Aurrerantzean "mailari eustea" izango dela esan du.

## Agenda

Ostirala, 22:00etan Manuel Lekuona kultur-etxean



### "Carmina y Amen"

Paco Leon aktoreak zuzendutako filma ikusi ahal izango da Okendo Zinema Taldearekin elkarlanean udako kultura sailak antolatzen duen zineforum saioan. Bat-bateko bere gizonaren heriotzaren ondoren, Carminak bere alaba Maria konbentitzen du honen hiletaren berri ez emateko 2 egun pasa arte. Modu honetan kobratzeke zeukan aparteko ordainsaria kobratzeko. Bi egunetan gorpua gordetzen dute eta dolua euren Sevillako auzo apalaren baitako egunerokotasunean eramaten dute. Sarrerak Interneten 4,24 euro.

Hamaika ekintza izango dira egun osoan zehar. Hauetan parte hartzea irakia izango da.

**Urriak 12,**  
11:00 Lasarte-Oria Erreterria kultura trukea  
12:30 Valentziatik iritsitako "Raices del Sur" taldearen kontzertua  
14:00 Bazkari herrikoa  
16:00 Poteari tiro jokoa  
17:30 "Zambra" taldearen emanaldia  
18:00 Sevillana dantzialdia  
21:00 Amaiera ekitaldia

### Bestelakoak

HERRIAN ZEHA

Urriak 12

Buruntaldeako herrien ibilbideen eguna izango da. Honetan ohi bezala herrien artean haibat ibilbide egiteko aukera izango da.

### Hernani

#### Pausoka Jaia

GUDARIEN PLAZAN

Urriak 11

11:30 Kalejira txistulariekin  
11:30 talierak eta puzgarriak  
14:00 Paella jana  
16:30 Berdini taldeko nesken dantza emanaldia  
17:00 Atseingidegi plaza alaituko dute Porrotxek eta Ane Piratak  
19:00 Laurobaren kontzertua

Txoznak egun osoan zehar egongo dira irakita 20:30ak arte. Bildutako dirua Pausokako hurren tratamendu berezitarako izango da.

### Lasarte-Oria

#### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 6, 19:00etan

"Grupo molestias clownicas" lana ikusi ahal izango da Nagusien Omenaldia-aren egitarauaren baitan. Sarrera doan da.

#### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 6, 18:00etan

Pello Añorgarekin ekingo zaio ikasturteko ipuin-kontalariari haur liburute-

gian. Lehenengo saioa 4-5 urteko umei zuzenduta.

Asteartea 14, 18:00etan

Kontukantoiari txanda ipuinaren orduan. Haur liburutegian 6, 7 eta 8 urteko umei zuzendutako saioa egingo dute herriko kontalariak.

#### Aste kulturala

MICHELINGO TENIS PISTETAN

Urriak 10

17:00 Semblante Andaluzkoen Aste Kulturalaren hasiera ekitaldia egingo da

18:00 "Azabache" taldearen emanaldia

19:00 "Gitanillos del Alba" eta "Duende flamenco" taldeen emanaldia

20:00 Semblante Rociero abesbatzaren emanaldia

21:00 "Amigos del Sur" taldearen emanaldia

Amaieran sevillanek dantzatzeko aukera izango da.

Urriak 11, 11:00etik

FARAES Euskadiko Andaluzia Etxeen Topaketa izango da herrian. Semblante Andaluz herriko elkarteak antolatu ohi duen Aste Kulturalaren baitan.

## Herritarren txokoa

#### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru txirrinda, bi mugikor, bi pulterera bata urrezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak. Gauza hauen jabeak dirala egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

#### Xumela entsueguak

Xumela koruak entsueguak hazi ditu Landaberri BHI erakinean. Entseguak 19:30etik 20:30era egiten dituzte eta honetan parte hartzea irakia dela gogoratu nahi dute sustatzaileek ikasturte hasiera honetan. Euskara ikasten ari diren herritarrek bertaratzea animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egiteko leku aproposa delako.

#### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaleta-

sunak duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

#### Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek titularen eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hazi jasotzera pasa daitezke.

#### Txintxarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan haibat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordu-tegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

## Hemeroteka

### Duela 1084 ale

**MUSIKA ESKOLA: MUSIKA BIZI ETA IKASTEKO MODU EGOKIA**  
Musika-eskolak, 1989. urtean atak ireki zituenetik, Lasarte-Oriako herritarrei prestakuntza musikal ahalik eta onena ematen izan du benidanik behar. Urtez urte asmo horretan saiatu dira musika-eskola osatzen duten bederatzik irakasle. Oinarrituko ideia ikasleri horietan musika gerturatzeko da, pertsonarontzako oso balagarria dela ziur dardelako. Ikasurte horretan 250 ikasle inguru ibili dira Kultur Etxeko languren solairuan. Ikasleek gustuetara egokitu eta Udak musika-eskola partehartzaila osatzea da irakasle, guraso eta musika-eskolako batzordearen nahia. Hori horietako musika-eskolako arantegia Gipuzkoako boletinen argitaratzea besterik ez da filta. Denak zain daude, irabazte balarria musika-eskola bera izango baita.



1998ko urrian Udak Musika Eskolari buruzko erreportajea kaleratu zen TXINTXARRI-n. 1989. urtean hasitako ibilbideaz balorazioa egiten zuten ikasturte hasieran eta eskolaren bilakaeraz mintzatzen ziren irakasleak. Ikasturte hartan bederatzik irakasle eta 250 ikasle aritu ziren.

4 urteik aurrerako umeentzat zegoen eskaintza. Txikienak musika txokoa hasten ziren, musikarekin lehenengo harremana izateko. Bigarren mailan berri, musika mintzaira lantzen zen eta instrumentuarekin lehenengo lanak egiten hasteko garaia zen.

Hala ere eronka berriez mintzatzen ziren "Instrumentu desberdinekin osatutako taldea da eronketako bat, musika eskolako musika taldea izango dena". Hauen hitzetan bestalde, "musikaren garrantzia ez da baloratzen ez delako ulertzen. Horrekin ez dut esan nahi kulturari luxuzko tratamendua eman behar zaiton, baina agian gizarte alor desberdinak orekatuagoak egon beharko lukete".

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Pat Rice Filologoa eta Sinn Feineko mahai kide ohia

# “Bere identitateaz herri kontziente bat dago hemen”

Irlandan gaelikoz zegoen egunkari bakarra krisia medio itxi egin behar izan zuten

Lizartzan bolada luzeak pasatzen ditu Pat Rice filologoa eta Sinn Feineko mahai kide ohia. Euskal Herria bere bigarren aberria dela dio. Gaelikoa bere bihotzeko hizkuntza da baina euskarak ere badu bere tartea eta lagun artean hitz egiten duela dio harro. Bi kultura eta errealitate politikoak oso ondo ezagutzen ditu eta hain zuzen, bigarren horretaz mintzatzea etorri zen Lasarte-Oriara.

Maider AZURMENDI

Pat Ricek Ipar Irlandan, bigarren hezkuntzako irakasle lanetan aritzeaz gain, urtean zinegotzi izan zen Sinn Fein alderdiarekin. Indarkeria urte bortitzaren bizi zuten kargu publikoan eta bere etxean lehergaiua jartzera iritsi ziren. Unionismoa nagusi zen Lisburn hirian aktibismo politiko gogor zigortzen zen.

Sinn Feinaren baitan kultura esparruan lan egin eta gaelikoren sustapenean pasa du bizitza ederak. Hil baino lehen, euskal literaturako lan bat gaelikora itzuli nahiko luke.

## Nola iritsi zinen Euskal Herriara?

27 urte nituela Donostiara etorri nintzen ingeles irakasle bezala lanera. 1968. urtea zen. Emaztea eta bi semeekin etortzeko leku polita iruditu zitzaidan, baina orduan ezer gutxi nekien Euskal Herriaren inguruan. Hiru urte pasa nituen.

Egonaldi horren ostean, maitemindu egin nintzen eta nire bigarren aberria da egun Euskal Herria. Boladak pasatzen ditut nire Lizartzako etxean.

## Euskara noiz eta zergatik ikasi zenuen?

Aspaldi nahi nuen euskara ikasi. Ingelesa eta gaelikoz gain frantsesa eta gaztelera hitz egiten nituen euskara eronka bezala hartu nuen. Irlandara bueltatzean, bigarren hezkuntzako irakasle lanetan aritzeaz gain, urtean zinegotzi izan zen Sinn Fein alderdiarekin. Indarkeria urte bortitzaren bizi zuten kargu publikoan eta bere etxean lehergaiua jartzera iritsi ziren. Unionismoa nagusi zen Lisburn hirian aktibismo politiko gogor zigortzen zen.

tzako irakasle bezala lan egiten jardun nintzen, horrekin batera politikari aktiboki parte hartzen nuen eta Ipar Irlandako Lisburn hirian, Sinn Fein alderdiko zinegotzi izan nintzen 12 urtez. Politika, familia eta lana uzartzea ez zen erraza.

Oso egoera zaila bizi genuen, balen aurkako txalekoarekin ibili behar nintzen, behin lehergaiua jarri zuten nire etxe aurrean eta noski kotxez ez nuen egunero ibilidela bera egin. Errepublikanoentzat garai oso zailak ziren.

Bizitza modu horretan, egin nuen tartea hartu euskara ikasteko. Horregatik irakazkuntzatik erretiroa hartu nuenen, serio hartu nuen euskara ikastearena. Donostiara etorri nintzen 1998an emaztearekin lagun baten etxera eta hari esan nion, posible litzateke Gipuzkoako herri txiki batean etxe bat erostea? gainera aurrekontua ez zen oso handia... Lizartzan pisu bat erosi genuen berehala, ia pentsatu gabe. Horrela euskaraz hitz egiteko esparrua ere banuen. Egun irakurtzeko gai nazt baita solasaldi informalk euskaraz egiteko ere baina gai “serioetarako” gaztelera jarri jaten dit nire zoritxarerako.

## Zergatik diozu zoritxarek?

Ez zait gustatzen gaztelera erabiltzea, euskarak Euskal Herria bizi duen egoera dela, amorruta ematen dit. Hil baino lehen posible badut, euskarazko lehenengo liburua gaelikora itzuli nahiko luke.

Esan behar da euskara ikastea ez dela erraza baina niretzat elkarrekin a s u n keina da

hainbeste maite dudan herriarekiko.

**Irlanderak hitz egiten al duzu?**  
Gaelikoa hitz egiten dut bai, baina ez da nire ama hizkuntza. Haurra nintzela oso leku isolatuak hitz egiten zen gaelikoa modu natiboan. Nire familian esaterako, birraitonena izan zen hizkuntza hitz egiten zuen azken belaunaldia.

Hala ere, eskolan gaelikoa ikasteko aukera izan genuen irakaskai bezala eta nik udarak hemengo barnetegitza zuten hizkuntzan trebatzeko. 14 urterekin hitzatuak maila oso ona nuen eta ikasten jarraitu nuen. Nire bihotzeko hizkuntza da, hizkuntzaren sustapena nire bizitzaren parte garrantzitsua izan da.

## Hegoaldeko Irlandaren independentziak eraginik izan al zuen hizkuntzan?

Hegoaldeko Irlanda estatu independente egin zenetik 1921ean, gaelikoren presentzia eta egoera asko hobetu da. Orduan pertsona oso helduak ziren leku isolatuak hitz egiten zutenak. Ia galzorian zegoen leku askotan eta urteekin, berreskuratzen ahal izan da. Adibidez Eskozian azken hamarkadetan kontrako bidea egin du hizkuntzak eta arisku larrian dago, gaelikoko 60.000 hiztun ditu han.

Telebista kate bat dugu gaelikoz. Edozein lekutan istripu bat gertatzen bada, aurkituko dute irlandez hitz egiteko gaitasuna duenik. Ezagutza aldetik kopurua handia da, baina erabilera bestelakoa da.

Hego Irlandan, inkestean arabera, 77.000 lagunek diote gaelikoa egunero erabiltzen dutela, 120.000 gaelikoa behintzat asteen behin erabiltzen duela dio, beste batzuk berriz, hizkuntza noizena behin erabiltzen dutela diote.

## Eta Ipar Irlandan?

Ipar Irlandan egoera bestelako da, ezagutza maila eskasa da. Hala ere, Belfasteko taxi beltzetan edota gune batuetan gaelikoa entzuteko aukera gehiago dago Dublingo edozein distritutan baina.

Protestanteen artean bada langile mugimenduren inguruan, nolabaitteko joera hizkuntzarekiko ardua erakusten duena. Euren pentsaeran,

gaelikoa hitz egitea irlandarrak direla erakusteko bidea da.

## Bi hizkuntza gutxitu izaki, pareko egoera bizi dutela uste al duzu?

Euskal Herrian euskararen egoera hobe dela esango nuke. Sinn Fein alderdiaren baitan kultura saillean lan egiten urteak eman ditut eta hartu-emanak izan ditut Euskal Herrian ezker abertzaleko kideekin. Han hizkuntzaren sustapenean eredu bezala euskararena jartzen nuen beti.

Krisia tarteko, gaelikoz zegoen egunkari bakarra itxi zen. Gobuak diru laguntza kendu eta ezin izan zuten aurrera egin. Salmeta kopurua txikia zen, banaketa arazoa handia zegoen eta iragarrik ez zuten ia.

Esan behar da irlandera hitz egiten duen jendearen artean, badela talde handi bat hizkuntza irakurtzen ez dakiena.

## Egoera politikoari dagokionez...

Estatu espainiarraren aldetik ez dago borondatek egoera konpontzeko. Hori da oztopo nagusia. Han ere hasieran ez zegoen borondatek, gobernu britainiarrak eta IRAren arteko ezkutuko bilera egon ziren eta Ingalaterra onartu zuen ez zela interes politiko-ekonomikoa Irlandan Iparaldean. Adierazpen horrekin onartu egin zen nolabait noizbait lurraldearen etorkizuna erabakitzeko aukera egoera zela.

Ostean, nazionalismoa batu egin zen erabakitzeko eskubidea oinarritzat hartuta. Bakearen aldarrikapenarekin bat egin zuen Hego Irlandako gobernuak egun bertan eta IRAk su etena deitu zen. Paramilitarren kasuan, hiru hilabete beranduago egin zuten su etena.

Negoizazioak hasi zituzten eta Ostial Santuko hitzarmenarekin eman zitzairen amaiera. Honen oinarrian, erabakitze eskubidea da aitortzen dena. Sinatu du Ipar Irlandan gehiengo egotekotan hegoaldearekin batzearren alde, Ingalaterrak Dublinekin batera landuko lukela lotze prozesua eta erabakia onartuko lukeela.

Guk gehiago eskatzen genuen hitzarmen hartan baina ezin izan zen lotu.

## Zein uste da Ipar Irlandaren etorkizun hurbila?

2016rako erreferenduma eskatzen ari gara. Nahiko ziur nago gehiengo gaia bizirik mantentzea oso garrantzitsua da guretzat.

Orain muturreko unionismoaren adarra ar da indarra hartzen, atzera bueltatu nahi duela baina ezin da. Negoizazioak utzi dituzte marxa batzuk tarteko... Belfasten bandera britainiarrak ez dagoelako zintzilki urte osoan udaletxean... Ez gaude momentu onean.

Errepublikanismoaren aldetik, sektarismoarekin amaitu nahi da. Zauriak itxi, gogoia dago dena atzean utzteko baina unionismoa ez dago bide honetan. Benetako zailtasunak daude.

## Eskoziako kontsultak eraginarri izan du?

Unionistek zer pentsatua eman die.

## Ipar Irlandan komunitate oso bananduta al dago?

Batez ere jende gaztearen artean gauzak aldatzen ari dira. Erlijioak indarra galdu du eta gero eta gehiago dira bikote mistoak adibidez. Guk bereizitako auzoekin bukatu nahi dugu. Unionismoak ordea, sektarismoa mantendu eta indartu nahi ditu, ghettoak handitu nahi ditu.

## Euskal Herrian zein pauso eman behar dugu?

Hemen nazionalismo espainiarrak da oztopo nagusia. Erreusua Batuk egin, onartzen du estatu plurinazionala dela. Bestalde, herria egitea oso garrantzitsua da, Udaltzita ezagutu nuenen oso ekimen ona iruditu zitzaidan adibidez. Herrialdea batutagoa ikusten dut orain, inork ezin die herri-tarrei euren eskubidea kendu. Egoera zaila ikusi arren, arrazioa ez duen bakarra da gauzak aldatuko ez direla esaten duena. Historiak erakutsi du gauzak bati aldatzen direla.

Inork ez daki zer gertatuko den hemen, baina nire iritziz batuta egotea garrantzitsua da. Azken urteetan nolortasuna landu da, bere identitateaz herri kontziente bat dago. Hori azken hamarkadetan lortu da eta aurrera pauso garrantzitsua da. Ezin da ezkortasunean erori, baikorra izan behar da etorkizunari dagokionean.

